

BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1995eko maiatzaren 12a. 14. zenbakia. Doan banatzen da.



*Txakur lerak
Leitzaranen*

Horixe Baietz!!

UDAL EUSKALDUNAK...

behar ditugu



ANDOAIN




AMASA-BILLABONA



ASTEASU

**Eman BOTOA
HERRI
BATASUNA-ri**



ZIZURKIL

Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**
ZE BERRI?
Kiko Duran, top-model.
2. **INKESTA.**
Eta zure ustez, nolakoa izan beharko luke alkateak?
3. **LARRAUL.**
Alkatearen hautaketa.
- 4-5. **ANDOAIN.**
HBren hautagaiak eta lan ardatzak.
Askagintza: preso sozialen egoera aztergai.
6. **ASTEASU.**
Zumea lantzen.
7. **BILLABONA-AMASA.**
Amasako borden erakusketa.
HBren hautagaiak.
8. **ZIZURKIL.**
HBren hauteskundeetarako programa.
- 9-10. **ERREPORTAIA.**
Txakur lerak Leitzaranen.
11. **BASERRIA.**
San Isidro, baserritarren eguna.
- 12-13. **KULTURA.**
Euskal umoreari buruzko mahai-ingurua.
14. **LEHIAKETA.**
15. **HEMEROTEKA.**
16. **AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia.
Banaketa arduraduna: Iñosken Mujika.
Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.
Inprimategia: Gertu Kopp. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Ze berri?

Andoaingo XI. erakustaldia



Kiko Duran Top-model

ANDOAINDARRA; 19 URTE; LEITZARAN IKASTETXEKO IKASLEA; ALTUERA: 1'85 METRO; ILE LUZE ETA KIZKURRA; BELTZARANA.

- Zergatik uste duzu aukeratu zaituztela?

- Ez dakit, ba. Epaileek neurtzen dutena zera da: arropa jazteko eta erazteko era, pasarelan ibiltzeko era... itxurari ere erreparatzen diote, baina ez da garrantzitsua. Bestalde, daukadan esperientziak ere asko lagundu didala uste dut: nire laugarren desfilea da Andoainen eta Gure Txokoa ere pase bat eginda nago.

- Nolatan ekin zenion desfileetan aurkezteari?

- Eskolan geundela casting bat zegoela jakin genuen. Lagun batzuekin batera aurkeztu nintzen eta aukeratu egin ninduten. Eta geroztik urtero hartu naute.

- Profesionalizatzeko asmoa al daukazu?

- Momentuz karreraren bat edo ofizioren bat egitea seguruagoa iruditzen zait. Hemen modeloek ez dute etorkizun handirik, horretarako Madril, Bartzelona edota Valentzia bezalako hiri handietara joan beharra dago. Dena den, udan diru pixka bat irabazi eta ondoren ikastaro bat egiteko asmoa daukat. Gero izena agentziaren batean eman, eta...

- Andoaingo aurrerapauso handia izan al da?

- Bai, aukeraketari esker book bat (argazki bilduma bat) egingo didate. Argazkiak ezinbestekoak izan obi dira edozein casting-ean aurkezteko. Gainerakoan, argazkiak zure kasa egitea oso garesti da.

- Zaintzen al duzu batere zure burua?

- Ba, bai; janaria, batez ere. Egun batean gebiegitxo jaten badut, buruarekin gutxiengoan gutxiengo jaten dut. Ez dut gimnasiarik egiten.

- Ze eduki behar da top-model izateko?

- Gutxieneko altuera behintzat eduki behar da: 1'80 metro. Jakina, kiloak soberan ez dira eduki behar. Zure estilo propioa edukitzea ere garrantzitsua da. Eta pasarelan ongi mugitzen jakin behar da: koreografia txukuna egin, eta erraz ibili.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jaso du.

Eta zure ustez, alkateak nolakoa izan beharko luke?

Udaberria iritsi da, eguzkiak berotzen hasi du, egunak majo luzatu dira, eta hilabete honetan zehar San Isidro, Amaren Eguna, jaunartzeak eta beste ospakizun ugari izango ditugu. Oraingo honetan ordea, ez dugu bat bera ere aipatuko. Aurki gure begiak eta belarriak

beteko dituzten (hasiak dira dagoeneko) Udal hauteskundeetarako alderdi eta hautagaien izaerari helduko diogu. Jakin dezagun, bada, herritarrek zer dioten: alegia, alkate batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak, euren ustez, zeintzuk diren.



Sandra Kamara.
Ikaslea.
Billabona.

Animatua eta martxosoa izan beharko luke. Herriak eskatzen diona egiteko borondatea duena. Gaztea bada, hobeto, gazteon nahiak beti ere ez dira oso kon-tuan hartzen eta.




Naiane Gonzalez.
Ikaslea. Andoain.

Niri berdin-berdin zait alkate bat edo beste. Jaietan gauza gehiago jarriko lituzkeen alkatea behar dugu, hala ere (Santa Krutz jai egunak ziren). Eta gainera, bere soldata igoko ez duen alkatea.



Maite Otaegi.
Langilea.
Zizurkil.

Alkateak alde batetik bestera dabilen pertsona izan behar du. Jakituna bai, baina ikasketek ez dute hori ziurtatzen. Jakituria barrutik eraman behar da.




Maite Iraola.
Langilea.
Asteasu.


Alkateak, herrian jendearekin haren handia izan beharko luke. Udalean egon eta jendearekin ez egoteak ez du zentzurik, jendearen beharrak zein diren jakin gabe alkateak ez du zereginik.

**ZURE
BOTOA**

**BILLABONA
AMASA**



**TRASPARENTZIA eta Ongizatea
ZALANTZARIK GABE Joxi ALKATE**



Parte hartze handia zinegotzien hautaketan

Alkatea nor izango den baino ez da falta.

Datozen lau urteetarako hautatu dituzte larrauldarek udalean lanean arituko diren bost zinegotzi eta hiru ordezkokoak. Ez dago alderdi politikorik, guztiak dira independente, eta maiatzean alkatea baino ez da hautatu beharko. Alkatea pozik dago lau urte hautetan lanean egon direnetatik bat baino ez baita berria "horrek herria gurekin gustora dagoela esan nahi du" adierazi digu.

Apirilaren bian hautatu zituzten Larraulgo herritarrek datozen urteetarako zinegotziak. Antton Amonarriz egungo alkatea, Jon Tejeria, Jose Anjel Zumeta, Joxepi Azkue, Pako Treku, eta ordezkokoak Lurdes San Sebastian, Jesus Mari Alkain eta Iñaki Usandizaga dira.

Jende askok hartu zuen parte hautaketan eta hautatuen artean alkatearen izena jasoko duen botua baino ez da falta. Maiatzean beraz, izen baten alde egingo dute apostu larrauldarrek.

Pozik gaude herritar askok hartu baitu parte hautaketan. Aurreko urteetan egon garenetik bat baino ez da ezberdina eta horrek egiten ari garen lanarekin jendea gustora dagoela esan nahi du, dio alkateak.

Maiatzetik aurrera, alkatea hautatu ondoren era berdinean lanean jardungo dutela esan digute zinegotziek. Egiten ari diren gauzeekin jarraitu, sortzen diren arazoei aurre egin eta Larraul bizileku egokia izan dadin saiatu.

Hori guztia aurrera eramateko, hauteskondeen ostean herritarrei deia zabalduko diete biltzeko eta dituzten behar, arazo eta kezkak agertu ahal izateko.

"Gure lana ez da herritarren nahiei eta beharrei aurre egiteko baliabideak jartzea baino. Horretan jardun gara eta horretan jarraituko dugu datozen urteetan ere" esan digute zinegotziek.



Alkatea hautatzea falta da

**AURRERA
TABERNA**
Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

**KARROZERIAK
LAGUNAK^S**
TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK
SORABILA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea

**BOSCH
SERVICE**

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN

**HERRI OSTATUA
TABERNA - JATETXEA**

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL



Preso sozialen egoera aztergai

Askagintzak antolatutako jardunaldiak maiatzaren 17-18-19 eta 20ean

"Bizirik bizi" lemapean ospatu berri du Askagintzak Udaberri Eguna, "Udaberri 95" kanpainaren amaierako ekitaldia. Drogomenpekotasunen aurka partaidetza herrikoia aldarrikatzen duen talde honek preso sozialek bizi duten egoera azpimarratu du aurtengo kanpainan. Eta hain zuzen ere, Andoaingo taldeak gai horri berari heldu nahi izan dio, eta, besteak beste, herriko preso sozialen egoera ezagutzera eman asmoz antolatu ditu jardunaldiak maiatzaren 17, 18, 19 eta 20ean Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

Lehenengo eguneko hizketaldia Andoaingo preso sozialei eta drogomenpekotasunei buruzkoa izango da. Hogeita hamar preso sozial andoaindar inguru daude gaur egun Langraitz, Martutene eta Basauriko espetxeetan. Askagintzako kideek hamabostero bisitatzen dituzte Martutenen eta hilerio Langraitzen. "Andoain ez da egoera hau ezagutzen", esan digu Mikel Goenaga So-

rabillako apaizak, "eta egoera hori gaur herrian gertatzen ari denaren adierazle baino ez da, *argi gorri bat, alegia*".

Bigarren eguneko jardunaldiak helburu zehatz bat izango du: drogomenpekotasunekin harremana daukaten hainbat programa aurrera eramateko herrian talde eragile bat sortzea. Billabonako esperimentzia ezagutu dute andoaindarrek, eta ereduari jarraitu nahi diote. Herrian presentzia izango duen taldearen ideia oso garrantzitsua iruditzen zaie: "Izan ere, Andoain orain arte Udaleko zerbitzu sozialaren bitartez bideratu izan diren drogomenpeek osasun zentrura bideratu dituzte. Gai horretan gure ikuspegia zabalagoa da, ez ditugu gaisotzat hartzen".

Maiatzaren 20ean drogomenpekotasunari buruzko filme bat pasatuko dute Kultur Etxean.

Egoera

Mikel Goenagak Andoaingo egoera ezaguturazi digu: gaur egun diseinuzko drogak kontsumitzen dira herrian; "ruta del bacalao" deritzona ere egiten omen da: Andoain-Zarautz-Gasteiz; aspaldiko herionazaleak; Gizaki Helburua egiten ari diren hamahiru lagun daude herrian; eta alkoholen gehiekeria gazteen artean handia da. Egoera etengabe aldatzen ari dela adierazi

digu Mikelek, hala nola, kontsumo motak.

Preso heroinazaleen egoera ere, gainera bada ere, oso modu adierazgarrian eman digu ezagutzera: "Kalean baino eskaintza hobea dago gaur egun gartzeletan; kanpotik ere bertara joaten dira erostera".

Askagintza eta erakundeak

Orain dela bederatzita urte sortu zen trafiko egoera batzuei irtenbidea eman nahian. Eta geroztik bide ezberdinak jorratu ditu lanean: "Hasierra batean erakundeekin lan egiten ahalegin handia egin genuen, eta ikuspegi ofizialarekin behin eta berriro egin dugu topo", esan digu Mikelek, "gaur egun beriz, herriko egoerari hartu nahi diogu pultsua. Ez dugu teknikari soil batzuk izan nahi. Herrian presentzia areagotu nahi dugu".



ASKAGINTZA

Bizirik Bizi

HONDA YAMAHA KAWASAKI SUZUKI	<h1>AZKAIN</h1> <h2>MOTOAK</h2>	MOTUL FERODO NZI CASTROL DAINESSE AGV
		
• MOTORRETARAKO AKZESORIOAK • NEUMATIKOAK • MOTORE AZTERKETAK		
<p>Eskeintza berezia eta mugatua. Edozein motor erosita: EURODISNEY-era bi pertsonentzako bidaia eta sarrerak. Miarritzetik hegazkinez.</p>		
UBILOS AUZOA - 56.POLIGONOA - 12 zenb ☎59 14 13 ANDOAIN		

ALFARO

J A T E T X E A

EGUNEROKO MENUA
 Larramendi kalea z/g
 ☎ 59 40 27 **ANDOAIN**



HBren hautagaiak eta lan ardatzak

Juan Joxe Petrikorena alkategai

Giza sektore guztietara iristeko moduko zerrenda osatu nahi izan du HBk. Ezker abertzalearen eguneroko lanean alor batean edo bestean aritua. Aurreko legegaldiari buruz egindako balantzean defizit demokratikoa azpimarratu du. Datorren legegaldirako hauteskundeetan indar politikoko bakoitzak jasotako botoen arabera batzordeen eta karguen banaketa defendatu du herri mugimenduen partaidetza ziurtatuz.

Juan Jose Petrikorena da zerrendaburu. Aritz Arnaiz presoak, Miren Begoña Mujikak, Arantxa Erasunek, Joxe Ramon Karrerak, Felix Ezeizak, Joxe Antonio Barandiaranek, Gotzon Garmendiak, Aitor Igarategik, Kristina Rodriguezek, Agustin Alberrok, Joxe Mari Aizpuruk, Joxe Ramon Bengoetxeak, Bixente Azurmendik, Migel Mari Oiartzabalek, Fermin Uribesalgok eta Gurutz Berazak jarraitzen diote zerrendan. "Euskararekiko dugun konpromezua kontuan harturik, erabat euskalduna da taldea", adierazi zuten prentsaurrean.

Aurreko legegaldiari buruzko balantzea egitean defizit demokratikoa izan zen gauzarik aipagarriena, "eta horren lekuko da HB etengabe Udal gestio gintzatik baztertzeko egindako saioak" adierazi zuten, "berdin, herriko talde eta erakundeei dagokionean, herri mugimenduen eta Udalaren artean elkarlanerako bideak behin eta berriz itxi direlarik". Egoeraren erantzuleztat alkatezta bere kasa gobernatu duen PSE-EE alderdia jo zuen.



Lanerako ardatzak

Langabeziari dagokionez, politika sozial indartsua garatzea dute helburu. Gaztedia Batzordearen sorrera proposatu dute eta emakumearen gaiari tratamendu berezia eskaintzea.

Udalak azkenengo urteetan erdara hutsez lan egin duela salatu dute Euskararen Ordenantzari bizkar emanenez. Talde kulturalen egoera itogarritzat jo, eta Kultur Patronatoa sortzea proposatu dute. Azkenik, herriko seme-alaba preso eta errefuxiatuei beren babes eta sostengua eskaintzeko borondatea agertu dute.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

Igeltzaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

Lirawna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

Ikatza Taberna

GIROK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN



Herriz herri

Asteasu

Zumea lantzen

Oinarrizko teknikak ikastea da ikastaroaren helburua


Bigarren klase egunean joan ginen eta ordurako saskitxo bana eginda zeukaten guztiak. Ekaina bitartean, zumeagintza-
ren teknika ikasi ahala, hala ere, saski eta apaingarri gehiago egiten jarraituko dute. Ondoren zaletasuna izaten jarraituz gero, euren lana izango da materiala aukeratzea eta sormena lantzea. Hamar emakumezko ari dira guztira ikastaroan parte hartzen Lezoko Xabier Olaziregiren ardurapean.

ordez ihiaren bihotza erabiltzen da: esku artean hobeto maneiatzen da. Horregatik da gauza txikiak egiteko ego-kiagoa; otar handiak egiteko aldiz ez du balio. Bestalde, ziri guztiak tamaina berekoak izan ohi dira, eta horrek artisauaren lana errazten du.

Teknika

Ihi ziri luzeak moztu egin behar izaten dira lehenengo ontzi bat ur epeletan sartzeko. Ordurako norberak jakin izaten du zein saski mota egin nahi duen, edota beste zerbaiti ekingo dion. Oinarria ongi egiten asmatzea izan ohi da lanik zailena; saski motaren arabera oinarria aukeratu behar izaten da. Ondoren ziri luzea hartu eta kordonatzen hasi beharra dago pentsatutako forma lortu arte. Azken errematea ere lan zail samarra izan ohi da; baina txukun egin ez gero, ontzi edo saskiari bestelako dotoretasuna eman ohi dio.

Zumeak berez duen kolorea ere alda dakioke apaingarriri bizitasun handiagoa eman nahi izanez gero. Horretarako hasieran ziri luzeak arropa tindatzeko tinturan murgildu behar dira. Zumea bakarrik erabili beharrean beste materiale batzuk nahastuz ere lan egin daiteke. Eta hori guztia egiteko eskuetan eztenak eta guraizeak hartuta, trebetasun pixka bat eta gogo handia baino ez da behar, kontatu digutenez.



Zume ziriak kordonatzen

Garai batean baserri gehientsuenetan lantzen zuten etxeokoe zumea otarrak eta saskiak egiteko. Soroko txoko batean izan ohi zituzten zume landareak. Gipuzkoan eta Nafarroan ere ugariak izan dira, mende hasieran batez ere, zumea landuz eratu diren lantegi txikiak. Gaur egun apaingarri gisa ez bada, jende gutxi egin eta erosten ditu zumezko gaiak. Dena den, badirudi, jendeak oraindik badaukala zumea lantzen ikasteko gogoia.

Zumea baino sarriago, gaztainondoa erabiltzen zen garai batean. Hilabeteetan egon behar izaten zuten adaskek ur epeletan beratzen, labean sartzen zituzten ondoren, eta azkenik, guri-guri jartzen zirenean ezpealak ateratzen zituzten lanean hasteko. Hemengo zumearekin ere prozedura bera erabiltzen zuten. Gaur egun ordea, zumearen

Pariseko La Sante-ko espetxean dagoen Joxe Lizaso Sorozabal gose greban



Asteasuko Amnistiaren Aldeko Batzordeak presoari alkartasuna adierazteko antolatuko diren ekin-tza guztietan parte hartzera gonbidatzen ditu herritar guztiak. Hala nola asteasuarraren helbidea eman nahi dute ezagutzera: *Joxe Lizaso Sorozabal. Maison d'Arret de La Santé 42, Rue de la Santé. 75674 Paris Cedex.*

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

BENGOETXEA



Aukeratu zure gida karneta

VILLABONA ☎ 69 00 57

ANDOAIN ☎ 59 44 06



Amasa inguruko borda eta baserrien erakusketa

San Isidro egunean egongo dira argazkiak ikusgai

Amasa inguruan borda eta baserri asko daude baina Ajendeak ez ditu ezagutzen. Hori dela eta Amasako gazteek erakusketa bat antolatu dute. Borda batzuk erdi erorita daude eta garai batean ardiatarako erabiltzen ziren beste batzuk hutsik. Berrogeita bost bordetatik zazpi oraindik bizia badute eta abeltzainek ardiatarako, lastoa gordetzeko edota txerrietarako erabiltzen dituzte. Bordekin batera baserriak ikusteko aukera egongo da erakusketan. "Gazteek batipat, ez dituzte inguruneak ezagutzen. Beraz, horiek ikusteko aitzakiaz egun pasa egiteko aukera aproposa izan daiteke", esan digu Joxe Ramon taldekideak.

Amasako III. krosa antolatu zutela aprobetxatuz, bertan jarri zuten erakusketa. San Isidro egunean ere ikusteko aukera izango du nahi duenak. Argazkiekin batera Udalak zabaldu duen borden mapa jarriko dute ikusgai.



Batzuk oraindik erabiltzen dituzte



Herri Batasunaren hautagaiak

Klaudio Etxeberria alkategai

Klaudio Etxeberriarekin batera hona hemen HBren hautagai zerrenda osatzen dutenak: Karlos Sarasa, Pello Garmendia, Juan Ignazio Ugartemendia, Maria Isabel Alkorta, Jokin Zapirain, Joxe Angel Apezetxea, Dorita Etxenike, Martxel Pita, Iñaki Zalakain, Iratxe Bidaola, Xabier Azurmendi, Begoña Usandizaga, Patxi Azpeitia, Urko Gorostidi eta Juan Ignacio Etxeberria.

Gipuzkoako bertsolari txapelketa

Maiatzak 12an gaueko 22.30etan Gurea zinema aretoan Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehen kanporaketa saioetako bat egingo da. Honako bertsolari hauek hartuko dute parte: Mikel Aranburu, Iker Agirre, Lander Diaz de Gereñu, Imanol Epelde, Maialen Lujanbio, Iñigo Manzisidor, Joanito Mitxelena eta Xabier NARBARTE.

Egun hauetan herri ezberdinetan egiten ari den txapelketa Gipuzkoako txapelketaren lehenengo faseari dagokio; bigarre-na udazkenean izango da.



Arg: Leire Arzuaga

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajarena
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA
ZURE ETORKIZUNA BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJIK
IBON GARMENDIA UGARTE
Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA



HBren programa hauteskundeetarako

Herriko beharretara egokitutako lana egin nahi dute

Alkatetza beraiena izan da azken lau urte hauetan, eta aurreko legealdiko egitasmoak bete omen dituzte. Herria gune aktibo eta bizia izatea lortu nahi dute aurrerantzean.

Azken legealdirako zituzten helburu gehienak bete omen dituzte hirigintza-ingurugiroa, ongizate eta kultura alorrekoak, bederen. Baina aurrean duten erronka ez da nola nahikoa. Ongizate esparruan drogomenpekotasunaren auzia landuko dute. HBren esanetan "interes ekonomiko handiak daude gai horren atzean eta Estatuaren aldetik drogen instrumentalizazio nabarmena ematen da, pasibitatea e.a. bultzatzeko", beraz, drogomenpekotasunaren fenomenoaren sortzen duten arrazoiak salatu eta aztertu behar dira gero horiei aurre egiteko. Droga trafikoa salaketa egiteaz gain, drogomenpekotasun arazoak dituztenei laguntza eta

herritarrei bideratutako prebentzio programak landu nahi dituzte.

Kulturaren ere aurreko legealdiko ildoari jarraitu nahi diote, "herria euskalduntzeko bitartekariak jarritz eta kultur arloa jorratzen duten taldeak bultzatuz". Azpimarratzekoa da irakaskuntzako erreforma ezartzeko garaian herriko guraso eta ikasleen interesak defendatuko dituztela.


Herriko gazteentzat berriz, ikastaro homologatuen aukera zabalduko dute. Etxebizitzaren inguruan gazteek dituzten arazoak lantzea, eta aisialdiarako lokal egokia aurkitzea agindu dute.

Xabier Pellejero da zerrendaburu. Gurutze Asuabarrenak, Pedro Mari Argaiak, Manuel Lizarragak, Pedro Galarraga presoak, Balen Tolosak, Bernardo Arregik, Mila Erbitik, Maribi Arregik, Joseba Iñaki Urkolak eta Mikel Arrastoak osatzen dute zerrenda.



Larramendi Kultur Bazkunaren II. Biltzar Nagusia

1995. urteko lan programa eta aurrekontua aztertu zituzten, besteak beste Zizurkilgo Iriarte Etxean egindako II. Biltzar Nagusian. Aurtengo lan programak bi atal izango ditu: batetik, Bazkuna osatzen duten herrien arteko programa amankomuna osatuko dute AIURRI hamabostero plazaratzen jarraituz, saiakera bildumako liburu berri baterako deialdia eginez, eta "Rikardo Arregi" hemerroteka osatuz. Bestetik, udazkenean azkenengo 25 urteetan euskal kulturaren izan adierazpen aipagarrien erakusketa egingo da hainbat ekitaldien bidez

 **MAPFRE**
ASEGURUAK
 ZURE
 AURREZKIENTZAKO
 MAPFRE
 SUPERKONTUA
 ERRETENTZIORIK
 GABE
 Xabin Mujika Tolaretxipi
 Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
 Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
 Faxe 30-00-85
 ANDOAIN

OGi ZURi
 Okindegia
 ZURI ZURIA...
 Lizarra kalea, 32
 ☎ 69 18 96 ASTEASU
OGi-GOXO
 Okindegi eta Gozotegia
 EDO BELZTUXEAGOA,
 BAINO GOXO
 GOXUA!!
 Kale Nagusia, 26
 ☎ 69 32 94 BILLABONA

Juan Bautista
ORMAZABAL

PINTURA LANAK
ORO HAR
Profesionalak gara

Txakur lerak Leitzaranean

Gorlako lasterketa da Gipuzkoako bakarra

Leitzaranean, Andoaingo Tren Txikiren ibilbidean zehar, ez dituzte lasterketak egiten; astean hiru edo lau aldiz ordea, dozena erdi lagun eta beste hainbeste txakur edo gehiago ibiltzen dira txakur lera entrenamenduak egiten. Kotxeak Otita parkean utzi eta atzeraurrera egiten dituzte hamarren bat kilometro aldiko. *Mushing* da kirolaren jatorrizko izena, *musher* berriz, kirola egiten dutenei esaten zaie. Ez da berez oso kirol ezaguna, lasterketak ere ez baitira oso ugariak; dena den, azken bolada honetan txakurrekiko eta mendiarekiko zaletasunak bultzatuta, edota kirol berriak probatzeko gogoak eraginda, *mushing* egiten dutenak ugaldtu egin dira. Bat baino gehiago liluratu du txakur ipartar hauen edertasunak, eta zakurzale bat baino gehiago zapuztu du horrelako txakur batek, erosi eta etxerako animalia aproposa zelakoan, beren egoskortasunaz eta izaera basati samarraz ohartuta. Rafael Elorza donostiarra txakur lera praktikatzen duen *musher* horietako bat dugu, lehiaketa bat baino gehiago irabazi du eta astero-astero etortzen da Andoainera entrenatze-

zikletak, trizikloak edota eskiek lera ordezkatu dute, eta hiru edota dozena erdi txakur tiratzen aritu beharrean, bikotea edota bakarra erabiltzen dute, *pulka* esaten diote azken modalitate horri.

Txakur ipartarrak

Txakur ipartarrak izan ohi dira leratik, bizikletatik edota eski gainean jarrita dagoen *mushberrarengandik* tiratzen dutenak. Lau arrazakoak dira Espainian aritzen direnak, eta estatuko txakur leren elkarteak lasterketak egiteko legez onartzen dituen bakarrak: *husky* siberiarra, Alaskako *malamutea*, *samojedoa* eta groenlandiarra.

Psikologikoki nahiko txakur primitiboak dira

Huskyak dira txakur leretan normalean parte hartzen dutenak, txakur arinak eta bizkorrak dira. *Malamuteak* horien aldean indartsuagoak eta handiagoak dira, baina baita motelagoak ere. *Samojedoa* dira, ziur aski, ikusgarrienak: ile zuri-zuria eta begi urdinak dauzkate. Groenlandiarrak berriz, oso urriak dira gure artean. Espainiaz kanpo txakur mestizuak ere onartzen dituzte, hau da, *huskyak* erbizakurrarekin edota xarlangoarekin nahastuta. Mestizu horiek lasterketetarako oso azkarrak izan ohi dira.

Txakur ipartar horiek badituzte berezko ezaugarri batzuk: tira egiteko daukaten joera da aipagarriena, baina horrezaz gain psikologikoki nahiko txakur primitiboak dira, alegia, basati samarrak. "Beste edozein txakurra berehala etsiko luke tira egiten hasiz gero", dio Rafaellek, "haiek berriz, oso egoskorak dira eta tira eta tira egiten dute". Horre-



Tren Txikiko parajeetan

Mende honen hasieran hasi ziren Kanada eta Alaskako lautada elurtuetan lehenengo lasterketak egiten, lehenagotik ere bertakoek garraio bide ohikotzat bazuten ere. European orain dela hamabosten bat urte egin zen ezaguna. Iruñakoa da Euskal Herriko lehenengo txakur lera elkarte, eta hiru urte baino ez ditu. Lehenengo lasterketa orain hiru urte egin zen, hain justu, Lesakan. Beraz, gure artean kirola oso

berria dela esan daiteke. Gaur egun praktikatzen dutenak dira aintzindariak.

Kirolak benetako zentzua elurretan egiten denean hartzen du Rafaelen esanetan. Hala ere, inguruetan elurra aurkitzea ez da oso sarri gertatzen, horregatik kirolzaleek jatorrizko kirola zertxobait eraldatu dute, eta beste modalitate batzuk sortu dituzte. Alegia, leku elurtuen ordeztu, mendiko pista laueta ibiltzen dira; bi-

Erreportaia

gatik guztiagatik, txakur ipartar hauek heztea ez da bate-re lan erraza. "Jende askok, beren edertasunak liluratuta, erosten ditu etxerako, baina ondoren arazo mordoa izaten dute: oso inpendenteak dira, ez dute jabearen autoritatea erraz onartzen, ihes egiten dute, eta mendira paseatzera atera eta ardi edo oilaskoen usaina adituz gero, arrapaladan ordaltuzten zaizkie", gaineratu du Rafaelek. Asko dira arrazako txakur ipartarrak erosi eta handik gutxira abandonatzen dituztenak, "SOS husky" deituriko elkarte bat ere badaigo txakur abandonatuak jasotzeko.



Buck, Rafaren txakurra

"Txakurrak ez ditugu inoiz gaizki erabiltzen"

Inork galdetu izan dio noizbait Rafaeli ez ote zaion iruditzen *musberrek* txakurrak gaizki erabiltzen dituztela. Rafaelen ustez txakur hauei sufriarazteko modurik onena etxetik atera gabe edukitzea da, eta alde horretatik behintzat, nahi adina korrika egiteko aukera izaten dute, "nahiz eta aitortu behar den", zehaztu digu, "nire txakurrak ere tira egiten baino Kontxan beste txakurrekin jostatzen gustorago ibiltzen dela". Gainerakoan arreta berezi-berezirik ere

ez omen zaie eskaini behar, hori bai, korrika asko egin ondoren, entrenamendu eta lasterketa garaietan, pentsu ugari eta ona eman behar izaten zaie, normala denez.

Elurretan bakarra


Gipuzkoan egiten den lasterketa bakarra Bergarako Gorlan egin ohi da. Aurten bigarren aldia izan da. Nafarroan urtean zehar bost lasterketa izaten dira, eta horietatik bakarra elurretan. Hogei kilometro inguruko lasterketak izan ohi dira hauek, eta guztira, beti-betikoak berrogeita hamarren bat lagunek hartu ohi dute parte. Espainiako txapelketa Baqueiran ospatu da aurten. Kataluniarrak izan dira orain artean estatuan nagusi.

"Pirena": hamabost egun irauten duen lasterketa

Distantzia motzeko lasterketa hauez gain, badaude ordea, nazioartean ezagunak diren distantzia luze-ko lasterketak: "Pirena" gertuen, "Alpirot" Alpeetan eta Alaska osoa alde-rik alde 1.600 kilometro eginez zeharkatzen duen lasterketa. Hamabost egun irauten du Pirenak eta Formigaletik irtenda Pirineo mendizerra ia osoa zeharkatu ohi du. Aipaturiko lehiaketa ospetsu hauetan *mushber* profesionalek hartzen dute parte.

Lasterketetan ondo ibiltzeko txakurra sasoi onean egotea ez da nahikoa izaten; arin ibiltzeko *musberrek* ere ongi prestatuta egon behar du. Entrenamenduak, lasterketak bezala, neguan izan ohi dira ugarienak eta astean hiru edo lau aldiz ibiltzen dira lasterka.

Bukatzeko Rafael Elorzak Tren Txiki inguruko baserritarrei ere ohar-tarazi nahi izan die, txakurrekin hara eta hona ibili arren, ez daukatela zertan kezkatu beharrik, txakurrak ia beti ongi lotuta edukitzen baitituzte eta *musherrak* begi bistatik kendu gabe.



Lasterketa elurretan

San Isidro, baserriarren eguna

Elizkizunek eta jan-edan gozoek osatzen dituzte gehienbat egitarauak

Maiatzak 15 dugu San Isidro eguna, nekazari eta baserriarren eguna. Aspaldikoa da nekazal herrietan San Isidro eguneko mezaren eta prozesioaren tradizioa; berriagoa ordea, herri-kirol saioak, bertsolariak eta bazkari-afariak egiteko ohitura. Aduna, Amasa, Asteasu, Larraul eta Zizurkil gaur egun jai giroan ospatzen dute San Isidro eguna, tradizioari eutsiz batetik, eta ospakizun berriak antolatuz, bestetik.

San Isidro baserriarren zaindaria izateaz gain, Madril hiriarrena ere bada. 1.080 urte inguruko gaztelau hau nekazaria izan zen, eta bere bizitza osoan zehar egin zituen mirariengatik beatifikatu zuten 1.619. urtean. Tradizioak dioenez San Isidro ez zen lurjabea, jaun handi baten lurrak lantzen zituen. Etxeko gainerako morroiak eta nagusia bera ere beti zeuzkan aurka. Behar bezain beste lan ez omen zuen egiten; lana utzita mezetara joanez eta otoitz egiten galtzen omen zuen denbora. Hori dela eta, jaunak askotan zigortzen omen zuen.



San Isidro baserriarren zaintzaile

San Isidroren santutasunaren adierazle, bi dira tradizioak bildu dituen mirariak: behin sorora goldatzen ari zela meza orduak jo, eta elizara joan zen. Elizatik itzuli zenean sorora alde omen zegoen goldatuta. Beste behin, San Isidroekin batera lanean aritzen ziren morroiak jaunarengana joan ziren Isidro gizaixoari buruz gaizki esaka. Nagusiak lana egin bitartean zelatzea

erabaki zuen. Sorora iritsi zenean Isidroekin batera idi-uztarria jarrita bi gazte lanean ari zirela ikusi omen zuen. Isidroengana iritsi zenerako ez zuen bere morroia baino ikusi. Nagusiak bi gazte haiek nortzuk ziren galdetu zion. Isidrok laguntzaile bakarra Jainkoa zuela erantzun zion.

Tradizioa ahoz aho gure egunetaraino iritsi da eta baserriar batek berak kontatu digunez, soroan lan eta lan ari den baserriarri, erdi-txantxetan erdi-serio, San Isidro esaten zaio.

Baserriar kopurua

Adunan 300 biztanle dira eta 21 nekazal esplotazio daude. Asteasuk 1.201 biztanle dauzka eta esplotazioak 84 dira. Larrauldarrek 142 dira eta beren nekazal esplotazioak 21, zizurkildarrek berriz, 2.692 dira eta 60 esplotazio daude.

Ospakizunak

Ospakizunak berdintsuak dira herri guztietan: meza eta ondorengo ekitaldia izan ohi dira nagusi eta bazkaria edo afaria. Aipatzekoa da mezan eskaintza eta eskari bereziak egiten dituztela baserriarrek: uza ona, eguraldi egokia, lanean jarraitzeko sasoi...

Aduna: Meza ondoren prozesioa elizatik Santa Krutz ermitara

Amasa: Meza eta prozesioa
Harrijasotzaileak: Etxezarreta eta Gabilondo
Bertsolariak: Larrañaga eta Loidisaletxe
Bazkaria Arantzabi jatetxean
Bertsolarien bigarren saioa
Oskar eta Aitziber anai-arrebekin trikitixa gauerdira arte

Asteasu: Kale-jiran abiatuko dira trikitilarien laguntzaz elizarantz baserriarrez jantzita beren eguneroko lan-tresnak hartuta: eskuareak, atxurrak, segak... Meza ondoren prozesioa
Bertsolariak eta herri-kirolak
Bazkaria Iturriondo jatetxean

Larraul: Meza goizeko 9etan
Afarria Goiz-argi jatetxean

Zizurkil: Meza goizeko 11etan.
Idi probak: Azkarate baserriko idi pare kanpoko beste pare baten aurka
Bertsolariak: Mendizabal eta Zeberio
Bazkaria Pantxikane jatetxean

SAHATSA

**BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA**

Termin kalea, 16 – ☎ 69 28 83 – BILLABONA

BENITO

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

Euskal umoreari buruzko mahai-ingurua

Kike Amunarriz: "Mundua ondo ez dabilenaren seinale da umorea"

Apirilak 28aren ilunabarrean barre algaru ugari entzun ziren Zizurkil goiko Iriarte Etxean. San Millan guraso elkarteak antolatutako euskal umoreari buruzko mahai-inguruan Euskal Herriko kultura eta umorea ongi ezagutzen dituzten hiruko aparta bildu zen; Kike Amunarriz txiste kontalaria, Antton Olariaga marrazkilaria eta Mikel Mendizabal bertsolaria. Nork bere arloko umoreaz hitz egin zuen eta adibide ugari azaldu zituzten, bertso, marrazki eta txiste barregarriak entzuteko aukera eskainiz bertara hurreratu zirenei.

Hizlariak ezarri ziren mahai-iratzargailu bat, telefono listin bat eta antzeko gauza xeble gehiago zeuden; hitzaldia berezia izango zela ohartarazten zuten. Kike Amunarrizek bertso bat abestu zuen mahainguruari hasiera emateko eta barre algaru ugari entzun ziren aretoan bertsoaren neurri eta errima ezagatik.

Bat-bateko umorea

Mikel Mendizabalek bertsolari-tzako umoreaz hitz egin zuen eta umorea barrea sortzeko edota min egiteko izan daitekeela aipatu zuen. Ondoren, umore fina eta gordinaren arteko banaketa azaldu zuen, egun bertsolari-tzako umore fina bultzatu nahi dela gaineratuz; "Umore fina umore landua dugu, gauzak zehar-

ka esaten dira eta horrela, bertso ederragoa lortzen da. Umore gordina aldiz, gauzak diren bezela esaten direnean da, eta ezintasunaren ezaugarri da", Mendizabalen esanetan. Bestalde, bertsolari-tzako bat-batekotasuna behar dela zioen: "Edozein komentario edo egoerari berehala erantzuteko ahalmena. Lazkao Txiki genuen horretan maisu". "Mañukortaren keinuek asko laguntzen diote umorezko bertsoa botatzean", azaldu zuen Mendizabalek, bertsolari bakoitzaren izaerak eta itxurak umorea egitean duen garrantziaz hitz egitean eta "zenbait hitz-joko, tonu eta doinu konkretuek laguntzen dute umorezko bertso bat egitean", gaineratu zuen.

Bukatzeko gaijartzaileen umorea nolakoa den adierazi zuen eta

Amunarrizek lagundu zion gaijartzaile ezberdinak antzetzuz eta ikus-entzuleen barre algarak sortuz.

Amateria emateko Amunarrizek eta Olariagak «bertso gregorianoa» delakoa abestu zuten -ziotenez, Gipuzkoako bertsolari txapelketarako prestatzen ari ziren- eta jarraian Antton Olariagak ekin zion bere hitzaldiari.

Umore grafikoa; irakurri behar diren marrazkiak

Marrazki ugari erakutsi zituen eta bertan agertzen ziren umore teknika eta oro har, umore ezberdinak azaldu zituen. "Umore komikoa gure sentimenduak jokoan sartzen ez ditugunean sortzen da, gauza komikoa urrutik ikusten dugun zerbait da, eta gainera, goitik behera bezala begiratzen diogu", azaldu zuen Olariagak umorearen komikotasunaz hitz egitean.

"Barre egitea eta umorea ez da gauza bera"

ALUSTIZA baserria
 ☎ 943 - 690361 20150 AMASA

NEKAZALTURISMOA
J A T E T X E A

LIBURUDENDA

**LIBURU AUKERA
 EDERRA PRESTATU
 DUGU ZURETZAT**

Agustin de Leiza 27 ANDOAIN % 59 16 03

**FRANCISCO MENDIKUTE
 HARATEGIA**

Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
 EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

ERNIOBIDE
 JUAN CARLOS ARICETA

ZURGINDEGIA

**-Erreformak oro har
 -Neurrira egindako armairuak**

Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
 BILLABONA



Nabikoa barre egin

Ondoren, sarkasmoa min egiteko asmoarekin norbaitetaz barre egitea dela esan zuen, eta umoreak bere mugak badituela gaineratu zuen. Azkenik, benetako umorea nolakoa den esan zuen: "Gure sentimentuak jokoan sartzean eta desoreka ematen denean sortzen da umorea. Egoera orekatuan kolokan dagoen elementu batek sortzen digun irribarra da".

Bestalde, umore grafikoa bi atal nagusitan banatu zuen; umore mutua eta hitzezko umorea. Umore mutua marrazki soil batek barrea sortzen digunean gauzatzen da eta Olariagaren esanetan, marrazki bera in-

terpretatzeak eragiten baitigu barrea. Hitzezkoa aldiz, marrazkian bertan zenbait hitz edo zeinu agertzen direnean esaten diogu, hemen, marrazkia soilik ez baita ulertzen.

Bukatzeko, Kikeren karrikatura bat azaldu zuen eta honek hartu zuen hitza jarraian.

Helburuen araberrako umoreak daude

Txiste batekin hasi zuen hitzaldia eta umoreak gauza askotarako balio duela adierazi zuen, zigarro bat erretzeko aitzaki bezala erabili baitzuen aipaturiko txistea.

"Umorea mundu hau akatsez be-

terik dagoelako sortzen da baina beti ere distantzia batez; guri gauza txarren bat gertatzean zaigunean ez digu graziarik egiten baina aldame-nekoari gertatzen orduan bai barre algarak!", esan zuen Kikek. Baina guri gertatutako zerbaitetaz barre egin omen daiteke, beti ere aspaldi gertatutako estuasun bat bada, baina inolaz ere ez momentuko gertaeretan, Kikeren esanetan. Umore mota ugari dago; lortu nahi dugunaren araberrakoak omen dira umoreak. "Euskal Herrian umore kritikoa asko erabili zen frankismoaren garaian eta egoera hartaz barre egiteko zen", esan zuen Kikek, eta umore erreazionarioa, politikoa e.a. daudela gaineratu zuen.

"Gai tabuak; umorezko gaiak"

Umorea sortzeko elementu garrantzitsuenak gai tabuak, sexua gehienbat, eta estereotipoak omen dira: "Bilbotarrak harroputz estereotipoa duten bezala dute nafarrek astoena. Mundu guztian daude antzeko estereotipoak", Kikeren esanetan. Bukatzeko, hizkuntzaren hitz jokoak eta gaizki ulertzeak ere umorearen baliabideak direla esan zuen.

«Agur jaunak» abestuz amaitu zen oraindik ezpainetan dugun irribarra eragindako mahainguru xeblea.

Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61



ALOTZ

IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN



**GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA
GIRO EDERRA!!**


KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN



BEIBATEGI J A T E T X E A

Bulandegi bidea ZIZURKIL ☎ 69 21 78



- Eguneroko menua
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Ezkontzak



NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?



Beste pertsonaia ezkutu bat prestatu dugu. Zailxeagoa honako hau. Irabazleak **Andoingo Ormendi kirolak** eskaini digun **motxila eder bat** jasotzeko aukera izango du. Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, bidal itzazue zuen erantzunak Andoingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz. Zorte on!



Zizurkilgo Beldarrain baserriko Maurizio Dorronsoro Etxenagusia izan da "Pertsonaia ezkutu" lehiaketako bigarren irabazlea. Mikel Laboa abeslaria zen itxuraldatu genuen pertsonaia, eta Mauriziok berak esan digunez erraz asko asmatu du.

Andoingo Ernaitza liburudendako Garikoitzen eskutik jaso du Mauriziok saria

**Ormendi
Kirolak**

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

LIBURUDENDA

ERNAITZA
PAPERDENDA

Opari, libururu eta bideo
egokienak aurkituko dituzu.

ZUMEA KALEA, 2 ☎ 59 24 59 ANDOAIN

Otsoa etxean

Atsotitzak dioenez, joera nabarmentzen dugu anaiaren begian lastoa ikusi eta norberaren begiko habea ez ikusteko. Gehiago oraindik anaia (ahizpa-neba-arreba) izan ordez lehengusu txikia edo are urrunagokoa bada. Lasai asko esan dezakegu orduan besteak direla errudunak, besteen etxean egin duela kabia gaitzak.

Fundamentalismoaren kontuarekin ere, antzera gertatzen ari da. Honez gero "islamikoa" adjetiboa ateratzen zaigu hitzetik hortzera fundamentalismo hitza entzun orduko, eta halaxe zabaldu ziren berriak Oklahomako atentatu izugarriaren ondorengo lehen orduetan. Handik gutxira atentatugilea amerikar zuri gazte bat zela jakin zen (bitartean, nolana ere atzerritarren kontrako neurri zorrotzak eskatzen zituzten deiek irratietako telefonoak kolapsatu zituzten).

Ez zen falange arabiar bateko kidea, "Michigan Milizietako" partaidea baizik; taldearen sorreran ez zegoen "iman-ik", bai ordea apaiz protestante bat. Eta armak eta lehegailuak zituen, Estatu Batuetako hainbat taldekoek bezalaxe.

Eta botuak ere jasotzen dituzte han, ez bakarrik Aljerian. EEBBetako parlamentuan nagusi diren errepublikarren artean esaterako, askotxo dira eskuma kristauaren militanteak. Ez dituzte emakumezkoak beltzez jantzi nahin baina bai eskolan errezoak inposatu, homosexualei eskubide zibilak ukatu, eskola eta liburutegietan zentsura ezarri...

Esandakoa, hobe dugula geure buruko zorriak garbitzen hasi besteen burukoei begira gelditu baino.

Bego Montorio

Egunkaria apirilak 25

MERKATU TXIKIA

LANA

ZIZURKIL

Arratsaldez ume bat zaindu eta etxeko lanak egingo nituzkeen neska euskaldun bat naiz. Mainer. Deitu telefono honetara: 69 25 93.

AGURRA

AMASA

Agur honen bidez ikasle guztioi animatu nahi zaituztet opor sasoi hau igaro eta gero. Gauza bat bakarrik pentsatu: azken txanpa dela eta denboraldi batean irakasleen aurpegia ikusi barik egongo zaretela. Animo, neska-mutilak!!!

Bazkide bat

ESAN eta IZAN

DIPUTAZIOA

UDALETXEA

eusko
alkartasuna



Erantzukizuna

Agenda

ERAKUSKETAK

ANDOAIN

Maiatzak 12-21: Sormen tailerrak antolatutako erakusketa Kultur Etxean.

ANDOAIN

Maiatzak 26-27: Bonsai taldeak antolatutako **bonsai erakusketa** Kultur Etxean.

BILLABONA

Maiatzak 20-Ekainak 3: "Euskal Herriko fosilak" Gurea zinema aretoan.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Maiatzak 13: Tanttaka taldeak "Denok Errudun" saioa eskainiko du La Sallesko antzokian 20.00etan.

BILLABONA

Maiatzak 19: "Pernando Bizirik Hago Oraindio" izeneko antzezlan eskainiko du Goaz antzerki taldeak Gurea zinema aretoan 10.30etan. Sarrera: 500 pezeta.

ZIZURKIL

Maiatzak 22-26:

V. haur antzerki astea:

Maiatzak 16: Kultur Etxeko gazte antzerki taldeak saioa eskainiko du 20.00etan.

Maiatzak 23: Kultur Etxeko haur antzerki taldearen saioa 17.30etan.

Maiatzak 24: Ikastolako ikasleen antzerkia Kultur Etxean 17.30etan: "Edurne Zuri" (1. eta 2. maila), "Erbi chiztaria" (4. maila).

Maiatzak 25: "Robinson Croussoe" eskainiko du Ados antzerki taldeak 17.30etan Kultur Etxean.

Maiatzak 26: Pedro Mari Otaño ikas-tetxeko 3., 4., 5. eta 6. mailakoen antzerki saioa ikastetxean bertan: "Pernando, hemendik ez det jango".

Maiatzak 27: Le galeon taldeak kafe-teatro saioa eskainiko du Zentro tabernan 22.30etan: "El silencio de las xingolas".

IKUSENTZUNEZKOAK

ANDOAIN

Maiatzak 14: Kittok antolatutako bideo emanaldia: "Noches salvajes". 18.00etan Kultur Etxean.

BILLABONA

Maiatzak 23: Imanol Lasaren "Urta-roak mendian" izeneko emanaldia Gurea zinema aretoan 20.00etan.

ZIZURKIL

Maiatzak 24: "Afrikako hegoaldea: Namibia eta Botswana" izeneko ikuskitzuna Kultur Etxean 20.00etan.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Maiatzak 21: Euskaldunak mendi taldeak Nazar eta Yoar Kodes inguruak (1.255m) bisitatuko ditu. Baita bertako monastegia ere.

BILLABONA

Maiatzak 27-28: Aizkardi mendi taldeak honako ibilaldi hau egingo du: Oza-Achergo gaztelua (2.390m)-Gabardito-Bisaurin (2.670m)-Oza.

BESTE

ASTEASU

ASTE KULTURALA:

Maiatzak 21: Gipuzkoako harrijaso-tzaile txapelketa.

Maiatzak 21 eta 23-25: Argazki erakusketa.

Maiatzak 22: GR 121 Gipuzkoako birako argazki erakusketa.

Maiatzak 24: Haurrentzako antzerkia: "Poti, Kiki eta Kirika".

Maiatzak 26: Akelarre taldearen dantzaldia herriko plazan 23.00etan.

ZIZURKIL

Maiatzak 19-20: Kostata gazte asanbladak antolatutako haur asteburua:

Maiatzak 19: Merienda eta "karaokea" Kultur Etxean.

Maiatzak 20: Goizean "altxorren bila" Jose Arregi enparantzan eta arratsaldean jolasak eta esku-lanak Kultur Etxean.

MUSKIL:

Maiatzak 20-21: Zerainera ibilaldia: Zuazako udalekura bisita, besteak beste.

MUSIKA

BILLABONA

Maiatzak 14: "Isidro Larrañaga" akordeoi orkestra Gurea zinema aretoan 13.00etan.


LEHIAKETA

Beasaingo Udalak antolatutako abentura eta misteriozko nobela lehiaketa. Idazlanak irailaren 15erako aurkeztu behar dira. Saridunak 500.000 pezeta jasoko du.

ZINEMA

GUREA ZINEMA BILLABONA

"Reina Margot"
"Pret à porter"



GAZTEEN
ETORKIZUNA



Eman Botoa

ANDOAIN E.A.J. - P.N.V.

1. Garbiñe Eguibar Artola.
2. Maxen Zinkunegi Iraola. *
3. Mikel Arregui Aramburu.
4. Eugenio Ariztimuño Amas. *
5. María Pilar Berasain Biurrarena. *
6. Antonio Amondarain Aizpurua.
7. Ramón Jauregui Elizondo. *
8. Roberto Galarraga Astibia. *
9. Patxi Irigoras Etxebeste.
10. Arantxa Arberas Ezama. *
11. Antonio Guedejo Pérez.
12. Victoriano Ansa Goenega.
13. Andoni Elosegui Ezkurdia.
14. Juana Ikutza Arias.
15. Iñaki Irulegui Unzalu.
16. Eneko Urdangarin Eizaguirre.
17. Iñaki Artola Ugalde.

Ordezkoak

1. Antton Arratibel Buenetxea.
2. José Manuel Azpiazu Goñi.
3. Manuel Mauduit Aguirrezabala.

* *Independientea*



Esperientzia eta Etorkizuna



BILLABONA E.A.J. - P.N.V.

1. Xabier Zabala Zeberio.
2. Aitor Bereziartu Altolagirre.
3. Juan Telleria Amunarriz.
4. M^a Angeles Urdanpilleta Arregui.
5. Juan Martínez Etxarri.
6. Juan M^a Iparragirre Irazusta.
7. M^a Isabel Aizpurua Oiarzabal.
8. M^a Concepción Aizpurua Gardoki.
9. Bakartzo Oiarzabal Etxabe.
10. José Ramón Uson Gonzalez.
11. José Miguel Larrarte Argote.
12. Patxi Agirre Arrizabalaga.
13. M^a Victoria Zeberio Larrarte.

Ordezkoak

1. Pedro Elorza Etxezarreta.
2. Antonio Agirre Aizpurua.
3. Andoni Oiarzabal Etxabe.



AIURRI

BETERRIKO
ALDIZKARIA



M. LARRAMENDI

*Kultur bazkunak
Argitaratzen du*

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN




BILLABONA



ZIZURKIL



ASTEASU



LARRAUL



ADUNA

